Para hacer tal aseveración me baso en la perfecta ubicación de la casa 'kateko': Se encontraba en la intersección entre los dos caminos del barrio: Por un lado, el que por detrás de ella —y desde el puerto— se

¹² BFA. Busturiko ogasunaren ondarea. Atal judiciala. 1618. urtea.

A.F.B. Fondo de la Tenencia de Busturia. Sección judicial. Año 1618

¹³ BFA. Protokolo notarialen ondarea. Juan de Ibarraen eskribaua. Gernika 1608.

A.F.B. Fondo de protocolos notariales. Escribano Juan de Ibarraen. Gernika 1608.

¹⁴ CIRIQUAIN-GAIZTARRO, M.: "Los puertos marítimos del País Vasco", 75. or.

CIRIQUAIN-GAIZTARRO, M.: "Los puertos marítimos del País Vasco", p. 75.

Arratzurantz joiana (gaur egungo errepidea XIX. mendearen erdialdekoa da); eta, beste alde batetik, portutik bertatik urten eta Gernika, Lumo, Ajangiz, Mendata eta abarretarantz joiana.

dirigía hacia Lekeitio y Arrazua (la actual carretera data de mediados del siglo XIX). Y por otro lado, el que saliendo del mismo puerto se dirigía hacia Gernika, Lumo, Ajangiz, Mendata etc.



Antigua casa rentería, conocida como "Kateko"

Errenteria etxearen ondoan, porturako bidean, Barrenengoa torretxea egoan (beheko barrenengoa). Izen hori –beharbada– Errenteria torretxea gorago egoalako ipiniko eutsien, eta Ibinarriaga torretxea ondino be askoz gorago. Barrenengoa egoan portuko etxea; bertan deskargetan eta ixten ziran itsasadarretik gehienbat itsasontziz ekarritako merkatalgaiak, batez be burdinea, etenbarik jagondako gunean. Itsasontzietatik atera eta gero, merkatalgaiak derrigorrez pasau behar eban errenteria etxetik ('kateko' be deitua); bertan pisetan zan eta hantxe ordaintzen ziran zergak. Handik burdina-betea inguruko burdinoletera eroaten eban olagizonen landu eien. Gero, prozesua barriro hasten zan, baina alderantziz. Halandaze, burdinoletan egindako produktu siderurgikoak errenteria etxera ekarten ebezan, pisetako eta egokezan zergak ordaindu teko. Handik Barrenengoa ondoko ia gautegun jagondako zabalunera eroaten ebezan, Ajangizeko portuan itsasontzietara sartu arte.

Beste alde batetik, Ajangizeko portuan mobiduten zan dirutzeak norbanako asko animau

Al lado de la casa rentería, en dirección al puerto, se encontraba la casa torre de Barrenengoa ('la de abajo'), en contraposición –quizás– a la torre de Rentería que se halla en un plano más elevado, o a la casa torre de Ibinarriaga, en una situación mucho más elevada. En Barrenengoa se encontraba la casa del puerto, donde se descargaba y depositaba en una zona perfectamente vigilada, el género comercial, preferentemente el hierro, que llegaba desde la ría en barcos. Una vez descargada, la mercancía debía pasar obligatoriamente por la casa rentería, (o de 'kateko'), donde se pesaba y se pagaban los impuestos pertinentes. Desde allí se acarreamos la vena hasta las diferentes ferrerías donde era trabajada. Luego, se repetía el proceso, pero a la inversa. Es decir, los productos siderúrgicos elaborados en las ferrerías debían confluír en la casa rentería para ser pesados y para pagar los impuestos preceptivos. Desde allí se trasladaban a la explanada vigilada que había junto a Barrenengoa, donde esperaban a ser embarcados en el puerto de Ajangiz.

Por otro lado, el dineral que se movía en el puerto de Ajangiz animó a personas particulares

ebazan merkatalgaiak (batez be burdinea) gorde teko lonjak erostera, gero merkatalgai horreen salerosketan jarduteko. Esaten gabilzanaren adibide aproposa daukagu lehen be aitaturako eta burdinea gordeteko erabilten eban Barrena torretxe eta lonjan¹⁵ (Barrenengoa). Jabea Joan Luis de las Nabas zan. Beste adibide bat aitatzearren, Martín de Jáuregui ren etxea eta lonjea be burdina-betea gordeteko erabilten zan.

a construir lonjas donde almacenaban las mercancías (en general, hierro), y a dedicarse a la compra-venta de dichas mercancías. Buena prueba de lo que estamos diciendo la encontramos en la anteriormente comentada casa torre y lonja de Barrena¹⁵, (Barrenengoa) donde se depositaba el hierro, propiedad de Joan Luis de las Nabas, y la casa y lonja de Martín de Jáuregui, donde también se depositaba vena de hierro.

¹⁵ BFA. Protokolo notarialen ondarea. Ortuño de Zarra eskribaua. 434. signatura. Gernika 1617.

A.F.B. Fondo de protocolos notariales. Escribano Ortuño de Zarra. Signatura 434. Gernika 1617.

XVIII. Mendea

El Siglo XVIII

5

1. XVIII. mendeko su-errolak.
Fogueraciones del siglo XVIII.
2. Malosteko ortuari eta abere azokea.
La feria agrícola y ganadera de Maloste.
3. San Bartolome ermitea.
La ermita de San Bartolomé.
4. Madalena ermitea.
La ermita de La Magdalena.
5. Madalena auzoa.
El barrio de La Magdalena.
6. Mesedetako komentua.
El convento de La Merced.
7. Arazoak Errenterian berezko
parrokiarik ez eukelako.
*Problemas en Rentería por la falta
de una parroquia propia.*

5

XVIII. Mendea

El Siglo XVIII

1.- XVIII. MENDEKO
SU-ERROLDAK1704ko su-erroldea¹

Urte horretan su-erroldea bat egin zan, hau da, Bizkaiko etxeen zerrendea. Lan honetarako interesetan jakunerako, Ajangizeko erroldari erreparau deusagu, batez be Erreterria auzoari jagokon su-erroldari, eta honeek dira datuak:

1.- FOGUERACIONES
DEL SIGLO XVIIIFogueración de 1704¹

Con esta fecha se realizó una fogueración, es decir, una enumeración de las casas de Bizkaia. Por lo que a este trabajo interesa, nos hemos fijado en la fogueración de Ajangiz, concretamente en su barrio de Rentería, con el siguiente resultado:

Ajuriaren Etxeak



ETXEA / CASA	JABEAK / PROPIETARIOS
Ibinarriaga goikoa ▶	Segundo de Olavide. Pablo Olabe Ibinarriaga.
Ibinarriaga torretxea ▶	Juan Antonio de Urdaibai.
Ibinarriaga Ormaetxea ▶	María Olariaga. Juan Ispizua.
Etxezuria ▶	Francisco Ugarte. Pablo Sagasti.
Erreterria torretxea ▶	Francisca Antonia de Mendive. Miguel Zarragoitia.
Erreterria etxea ▶	Iñigo Ruiz de Albiz.
Erreterriako beste bat ▶	Francisca Antonia de Mendive. Manuel Omaechevarria.
Erreterrian etxe bat ▶	Iñigo Ruiz de Albiz. Francisco Echavarria.
Erreterrian beste etxe bat ▶	Iñigo Ruiz de Albiz. Magdalena Zaldumbide.
Aldamenean beste bat ▶	Juan Bautista Mendiola.
Beste bat Erreterrian bertan ▶	María Arrotegui.
Barrenengoa ▶	Juan Bautista Mendiola. María Olariaga.
Zarra ▶	Pablo Ortiz de Bidasolo. Segundo Albiz Basterrechea.
Madalena etxea ▶	Domingo Dobaran. Gonzalo de la Rentería.
Madalenen beste etxe bat ▶	J. Musatadi.

¹ KEREXETA, J.: "Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII". Labayru Ikastegia – Erriker. Bilbao.

KEREXETA, J.: "Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII". Instituto Labayru- Erriker. Bilbao.

Su-errolan ikusten denez, 1704. urtean 15 etxe egozan gaur egun Erreterria deitzen dogun auzoan. Kokaleku geografikoari jagokonez, sei etxe egozan erreterria etxearen inguruan ('kateko etxe' be esaten eutsien). Madalena ermitearen inguruetan (Malosteko kurutzetik hur), Madalenako etxe biak, Zarra eta hiru Ibinarriagak. Azkenik, Barrenengoa portu inguruan eta Etxezuria Arratzurako bidean.

Etxe berezien jabeek jagokenez, erreterria etxea Iñigo Ruiz de Albizena zan, Barrenengoa María Olariagarena, Erreterria torretxea Francisca Antonia de Mendive eta Miguel Zarragoitiarena, eta Ibinarriaga torretxea Juan Antonio Urdaibaiarena.

De tal fogueración observamos que en ese año de 1704 existían 15 casas en lo que hoy llamamos barrio de Rentería. En cuanto a su ubicación geográfica, existían seis casas en torno a la casa rentería (también denominada 'casa kateko'). En torno a la ermita de la Magdalena (cercana a la cruz de Maloste) se situaban las dos casas de La Magdalena, la de Zarra y las tres de Ibinarriaga. Quedando, por último, la de Barrenengoa en las cercanías del puerto, y la de Etxezuria en el camino hacia Arratzu.

En cuanto a los propietarios de las casas más singulares, la casa rentería pertenecía a Iñigo Ruiz de Albiz, Barrenengoa a María Olariaga, la casa torre de la Rentería a Francisca Antonia de Mendive y a Miguel Zarragoitia, y la casa torre de Ibinarriaga a Juan Antonio Urdaibai.

1745eko su-erroldea²Fogueración de 1745²

ETXEA / CASA	JABEAK / PROPIETARIOS
Urrengoerrotta ▶	Urdaibai. Mezeta. Loyzaga. Saldeguia.
Casa ▶	María Josefa de Albiz. Nicolás Basterrechea.
Casa ▶	José Mendieta. Felipe Antonio Echabarri.
Casa taberna ▶	José Gabina.
Casa ▶	María Josefa de Albiz. Martín Urgoitia.
Casa ▶	María Josefa de Albiz. Josefina Gomiztegui.
Casa ▶	Francisco Arechederreta. Francisco Aldecoa. San Juan Arteaga.
Casa ▶	Francisco Arechederreta. Martín Alonso Mezeta. Toribio Obieta.
Casa ▶	Martín Alonso Mezeta. José Jauria.
Casa en el arrabal ▶	Catalina Aguirre.
Torre ▶	Martín Alonso Mezeta. Toribio Obieta.
Barrenengoa Andicoa ▶	Martín Alonso Mezeta. José Zabala.
Ibinarriaga gojeazcoa ▶	Domingo Olabe.
Ibinarriaga torrea ▶	Bruno Urdaibai. Juan Izaguirre.
Ibinarriaga Ormaechea ▶	Antonio Jáuregui. Manuel Ispizua. Francisco Larrucea.
Magdalena oste ▶	Antonio Uribarri. José Uriarte.
Magdalena oste ▶	José Musatadi. Domingo Zerendieta.
Echezuria ▶	Antonio Joaquín Loyzaga. José de Torreazar.

Ibinarriaga de Suso



² Ibidem.
Ibidem.

Beste su-errola honen arabera, Erreteria auzoan 18 etxe egozan 1745ean. Etxe berezien jabeen artean, Ibinarriaga torretxearenak Bruno Urdaibai eta Juan Izaguirre ziran, Erreteria torretxearenak Martín Alonso de Mezeta eta Toribio Obieta, Barrenengoarena Martín Alonso de Mezeta, eta Urrengo errotearenak Urdaibai, Mezeta, Loizaga eta Saldeguiaik osaturiko taldea. Gauza bitxi lez, su-errolan erreteria etxea ez dala holan izentautu agertzen aitatu behar da.

Argi ikusten da jabe batzuk etxe batenak baino gehiagorenak zizala: jabetza gehien eukazana Martín Alonso de Mezeta zan, bost etxeren jabe edo jabeekide (euren artean, Barrenengoa, Urrengo errotea eta Erreteria torretxea). Beste alde batetik, María Josefa de Albiz hiru etxeren jabe zan.

Etxeen banaketa geografikoari jagokonez, sei Magdalena ermitearen inguruan egozan, bederatzik Erreteria torretxearen bueltan (gaur egungo 'kateko etxea'), Barrenengoa portutik hur, taberna etxea gaur egungo Erreteria zubiaren ondoan, eta Etxezuri Arratzuko bidearen hasieran.

1796ko su-erroldea³

Según esta fogueración, el barrio de Rentería tenía 18 casas en el año 1745. En cuanto a los propietarios de las casas más significativas, nos encontramos con que la torre de Ibinarriaga pertenecía a Bruno Urdaibai y a Juan Izaguirre, que la torre de Rentería pertenecía a Martín Alonso de Mezeta y a Toribio Obieta, Barrenengoa a Martín Alonso de Mezeta, y el molino de Urrengo a un consorcio formado por Urdaibai, Mezeta, Loizaga y Saldeguia. Curiosamente, en esta fogueración no aparece la casa rentería como tal.

Se observa una concentración de propiedades en manos de algunas personas: El principal propietario es Martín Alonso de Mezeta, propietario o copropietario de cinco casas (entre ellas, Barrenengoa, molino Urrengo y torre de Rentería). Asimismo, María Josefa de Albiz aparece como la propietaria de tres casas.

En cuanto a la distribución geográfica de las casas, seis estarían en las inmediaciones de la ermita de La Magdalena, nueve estarían en las inmediaciones de la torre Rentería (actual casa de 'kateko'), Barrenengoa en las cercanías del puerto, la casa taberna junto al actual puente de Rentería, y Echezurri en el arranque del camino hacia Arratzu.

Fogueración del año 1796³

ETXEA / CASA	JABEAK / PROPIETARIOS
Zarra ▶	Tomás Aurtenechea.
La casa inmediata ▶	Manuel Ariz.
La casa contigua ▶	Saturnino Salazar.
La que sigue ▶	Juan Francisco Arancibia.
La otra ▶	Saturnino Salazar.
La otra ▶	Manuel Ariz.
La casa taberna ▶	Concejo de Ajangiz
La casa del vicario ▶	Madres Mercedarias.
Urrengoerrota ▶	Urdaibai. Ariz. Loizaga
Barrenengoa ▶	Juan José Albiz
Tres casas contiguas a la torre y bajo un mismo tejado ▶	Manuel Ariz
Casa torre (de Rentería), frente al convento mercedario ▶	Manuel Ariz
Magdalena beazcoa ▶	Juan Astorza.
Magdalena ▶	Madres Mercedarias.
Orueta ▶	Francisco Orueta.
Ibinarriaga Goxeazcoa ▶	Juan Antonio Goiri.
Ibinarriaga, casa torre ▶	Manuel María Urdaibai.
(Ibinarriaga) Ormaechea ▶	Juan José Albiz.
Echezurri ▶	José Joaquín Loizaga.
Lorateguieta ▶	Joaquín Uriarte.

Su-errola honetan dagoaneko 22 etxe aiatzen dira. 1745eko azken erroldaren aldean, etxe barriak eregi zizala ikusten da, euren artean Orueta (Magdalena errotaik hur), Mesedetakoen bikarioaren etxea (eleizeari dautsala) eta Lorategieta (Arratzura joian bidearen esku-matara).

Etxe berezien jabeen inguruan, Urrengo erroreak Urdaibai, Ariz eta Loizagataren jabetzapean jarraitzen eban. Erreteria torretxea Manuel Arizena zan, Barrenengoa, Juan José Albizena eta Ibinarriaga torretxea, Manuel María de Urdaibairena.

Jabedun nagusien artean Manuel Ariz zan aitagarriena, 7 etxeren jabe edo jabeekide zan eta.

Hiru su-errolak alderatu ezkerro, datu honek jasoko geunke:

En esta fogueración aparecen ya 22 casas. Respecto a la anterior fogueración del año 1745 aparecen nuevas casas construidas, entre ellas Orueta (cercana a la ermita de La Magdalena), la casa del vicario de las Mercedarias (adosada a la iglesia) y Lorateguieta (a la derecha del camino que iba a Arratzu).

En cuanto a los propietarios de los edificios más importantes, el molino de Urrengo seguía en propiedad de los Urdaybay, Ariz y Loizaga. La casa torre de Rentería era propiedad de Manuel Ariz. Barrenengoa, de Juan José Albiz, y la casa torre de Ibinarriaga pertenecía a Manuel María de Urdaybay.

En cuanto a los mayores propietarios de casas, hay que citar a Manuel Ariz propietario o copropietario de 7 casas.

Comparando las tres fogueraciones comprobamos los siguientes datos:

	1704	1745	1796
Nº de casas	15	18	22
Principales propietarios	Propiedad repartida.	Martín A. Mezeta (5 casas). María Josefa de Albiz (3 casas).	Manuel Ariz (7 casas).
Urrengoerrota. (Propietario)	¿?	Urdaybay. Mezeta. Loizaga. Saldeguia.	Urdaybay. Ariz. Loizaga.
Torre de Rentería (Propietario)	Francisca Antonia de Mendive. Miguel Zarragoitia.	Martín A. Mezeta. Toribio Obieta.	Manuel Ariz.
Casa rentería (Propietario)	Iñigo Ruiz de Albiz.	¿?	¿?
Torre Ibinarriaga (Propietario)	Juan Antonio Urdaybay.	Bruno Urdaybay. Juan Izaguirre.	Manuel María Urdaybay.
Barrenengoa. (Propietario)	María Olariaga.	Martín A. Mezeta.	Juan José Albiz.

Etxezuri



2.- MALOSTEKO ORTUARI ETA ABERE AZOKEA

Aurretik be esan dogunez, Gernika urbil-duak eukan merkataritza jardunaren monopolioa eta azokak eratzea 1366tik harrezkero, hau da, On Tellok –urbiilduaren sorreragutunean– Busturialdeko eleizate guztietan, Gernikan salbu, azokak eta merkaduak eratzea galazo ebanetik.

2.- LA FERIA AGRÍCOLA Y GANADERA DE MALOSTE

Tal y como lo hemos analizado anteriormente, la villa de Gernika había mantenido el monopolio sobre el comercio y sobre la organización de las ferias desde el año 1366, cuando Don Tello –en la carta fundacional de esa villa– prohibió las ferias y mercados en todas las anteiglesias de Busturialdea, en favor de Gernika.

³ Ibidem.
Ibidem.

Aitatu dogu baita agindu horren eraginpean geratutako eleizateak pribilegio horren kontra eginaz auzitan sartu zirala be, eta 1598an⁴, auto judicial baten bidez, Gernikari kendu egin eutsiela merkataritzarako monopolioa, eta Erreteria auzoan merkadu barria zabaltzea lortu ebela, Madalena ermita ondoko hariztian hain zuzen be, Maloste deituan ('Madalen ostēren kontrakzinoa).

También hemos analizado cómo las anteiglesias afectadas litigaron contra este privilegio, y cómo en el año 1598⁴, mediante un auto judicial, quitaron a Gernika ese monopolio comercial, y consiguieron abrir un nuevo mercado en el barrio de la Rentería, concretamente en el robledal de la ermita de La Magdalena, llamada Maloste (contracción de Magdalen oste, que significa 'parte trasera de La Magdalena').



Maloste

Dana dala, Malosteko azokeari be murrizketak ipini eutsiezan. Holan, 1613ko garagarriaren 30eko Batzar Nagusian azokeak San Bartolome egunetik San Antolinera arte baino ezin izango ebala iraun agindu zan, aste bi eskas, Bizkaian larra gitxi egoala atxakiatzat ipinita. Murrizketa horregaz, Malosteko azokeak indarra galdu eban, ezin eban-eta abere azoka luzerik eratu.

Halandabe, XVIII. mendean iraupena luzatu egin zan abelgorri nagusien azokea gehitu jakon-eta, urriko lehenengo domekan hasi eta hurrengo lau domekatan egiten zana. Holan ba, Erreterian urtean ortuari eta abere azoka bi egiten zirala esan geinke: bata San Bartolometik San Antolinera, eta bestea urriko domeketan.

Apurka-apurka, ortuarien azokea uribildura hurreratu zan, itsasadarraren eta San Juan Ibarra zelaiaaren arteko gunera, eta Malosten

Sin embargo, también esta feria de Maloste sufrió restricciones. Así, en la Junta General de 30 de julio de 1613 se decretó que no durara más que desde San Bartolomé hasta San Antolín, apenas dos semanas, aduciendo los pocos pastos existentes en Bizkaia. Con esta limitación, la feria de Maloste perdió importancia al no poder tener una feria de ganado prolongada.

Sin embargo, durante el siglo XVIII amplió su duración con la feria anual de ganado mayor, ya que comenzaba el primer domingo del mes de octubre y continuaba en los cuatro domingos siguientes. Con lo cual, podemos afirmar que en Rentería se organizaban dos ferias agrícolas y ganaderas a lo largo del año: la de San Bartolomé a San Antolín, y la de los domingos de octubre.

Poco a poco, la parte agrícola de esta feria se fue trasladando a las cercanías de la villa, concretamente al espacio comprendido entre la ría

abelgorri nagusien azokea baino ez zan geratu. Francisco Sesmero irakasle jaunaren ustez, Gernikak bertakotzat hartu ebazan azoka biak, eta horixe da garai modernoagoetan 'urriko astelehen' deitu izan doguzanen jatorria.

3.- SAN BARTOLOME ERMITEA

Aurreko atalean ikusi dogunez, San Bartolome ermiteak –gitxienez– XVI. mendetik funtzionetan eban. Ermita (gernikarren euren bertsinoren arabera) Gernika uribilduaren babespean egongo zan.

y el prado de San Juan Ibarra, dejando en Maloste solo lo concerniente a ganado mayor. En opinión del profesor don Francisco Sesmero, Gernika asimiló para sí la ferias, lo que ha dado origen en tiempos más recientes a los llamados 'lunes de octubre'.

3.- LA ERMITA DE SAN BARTOLOMÉ

Como habíamos visto en un capítulo anterior, la ermita de san Bartolomé funcionaba –al menos– desde el siglo XVI. Decíamos también que esta ermita habría estado (según la versión de los propios guerniqueses), bajo la tutela de la villa de Gernika.



Procesión de San Bartolomé

⁴ Bizkaiko batzarrak eta erregimentuak. 1598. urtea. Bizkaiko Batzar Nagusiak

Junta y regimientos de Bizkaia. Año 1598. Juntas Generales de Bizkaia

San Bartolome deitorea

Elizbeth Hallamek⁵ azaltzen dauanez, Bartolome Jesusen dizipuluetako bat izan zan. Ez dakigu berataz gauza handirik, baina tradizio batzuen arabera Asia Txikian, Indiako iparraldean eta Armenian predikau ebalu pentsau lei. Azken herrialde horretan larua kendu eutsien bizirik zala –horrexegaitik da larri-ontzaileen zaindaria– eta gero burua moztu. Abuztuaren 24a da beraren eguna, eta santuari jagokoa sinboloa larri-ontzaileen hortza da.

Aztarna dokumentalak

Kalagorriko gotzainaren mandatariek jurisdikziozko parrokia eta ermitetara egiten ebezan bisitaldietako bat jasoten dauan dokumentua da lehenengo aztarna⁶. Izan be, San Bartolome ermitea aitatzen da 1758an egindako bisitan eta 1768koan. Azken horretan, gotzainak haxe eskatu eban: “que las tengan con mucho aseo y curiosidad, y sin permitir en ellas... cosas que no correspondan al lugar sagrado”.

Gero, XIX. mendearen hasieran, Juan Ramón de Iturrizak⁷ Arratzuko Santo Tomasen jurisdikziopeko ermiten artean aitatzen dauz Andra Mari Madalena eta San Bartolome ermitak, biak Ajangizeko Erreterian. Egile horrek berorrek dino San Bartolome ermitea behera bota ebela, noiz jausiko egoalako, 1789an. Baina auzotarrek eurek ermitako irudi guztiak handik hurreko Madalena ermitara eroan ei ebezan, santua hain eben gogo bizian maite. Hori danori egiaztatzen dauan beste dokumentu⁸ bat dago, 1796koa. Bertan, Kalagorriko gotzainak bialdutako ordezkari batzuek egindako bisitaldia kontetan da. Ba, bisita horretan ez da ermitearen barri jasoten, baina San Bartolomeren altarea, Madalena ermitan egoana, txikiegia zala aitatzen da.

Ermitearen diseinu eta egitura posibleak

Gurutzi Arregik⁹ proposatutako ermiten sailkapena, jatorria eta emondako erabile-rearen arabera, sakon aztertu eta gero, auzoko ermitea zala esango neuke San Bartolome, Ajangizeko herri-lurrean eregitakoa, herri-arboladi baten erdian hain zuzen.

Arboladia eta ermitea beti alkarregaz dagozan errealdadeak dira, eta horrek be bere logikea euki badauka. Manuel Estombak¹⁰ ikertu dau lotura hori, eta berba honek azaltzen dau: Gurutzi

Advocación de San Bartolomé

Según explica Elizabeth Hallam⁵, Bartolomé fue uno de los discípulos de Jesús. No se sabe mucho sobre él, aunque algunas tradiciones sugieren que predicó en Asia Menor, en el norte de la India y en Armenia, donde fue desollado vivo -motivo de su patrocinio de los curtidores- y luego decapitado. Su festividad se celebra el 24 de agosto, y su símbolo es la cuchilla de curtidor.

Los rastros documentales

Un primer vestigio documental aparece con motivo de una de las visitas que los enviados del obispo de Calahorra realizaban a las parroquias y a las ermitas de su jurisdicción⁶. Concretamente, se cita la ermita de San Bartolomé en la visita de 1758 y en la de 1768. En esta última, el enviado del obispo exigió “que las tengan con mucho aseo y curiosidad, y sin permitir en ellas... cosas que no correspondan al lugar sagrado”.

Posteriormente, a principios del siglo XIX, Juan Ramón de Iturrizak⁷ menciona entre las ermitas bajo la jurisdicción de Santo Tomás de Aratzu, la de Santa María Magdalena y la de San Bartolomé, ambas en la Rentería de Ajangiz. El mismo autor señala que la ermita de San Bartolomé fue demolida, por amenazar ruina, en 1789. Pero el fervor por este santo debía ser considerable entre los habitantes de la Rentería, ya que los mismos vecinos trasladaron las imágenes allí contenidas a la cercana ermita de la Magdalena. Todo esto queda certificado en otro documento⁸ fechado en 1796, donde se narra la visita que realizó a Aratzu una delegación del obispo de Calahorra. Pues bien, en la visita no se cita ya la ermita, pero se dice que el altar de San Bartolomé, que estaba en la ermita de la Magdalena, era demasiado pequeño.

Posible diseño y estructura de la ermita

Tras estudiar detenidamente la clasificación de ermitas que propone Gurutzi Arregi⁹, según los diferentes orígenes y las diversas funciones que han cumplido, considero que la ermita de San Bartolomé era una ermita de tipo vecinal, construida en terrenos comunales de Ajangiz, y rodeada de una zona de arbolado comunal que la circundaba.

La arbolea y la ermita parecen ser dos realidades indisociables que atienden a una lógica. Manuel Estomba¹⁰ ha investigado esa particular relación, y la explica en los siguientes términos:

“Al morir uno de los vecinos, corría la noticia de casa en casa, y el vecino de la última casa se la comunicaba a cierto árbol, como tótem protector de la vecindad. De no hacerlo así, creía que le podría sobrevenir alguna desgracia a este último vecino. (...) La ermita con su santo han sustituido al antiguo árbol protector. Aunque no del todo, porque junto a la ermita se yergue casi siempre un bosquecillo de robles”.

Arregik¹¹ auzotako ermitei buruz egindako ikerlanci jarraituaz eta San Bartolome ermiteari buruz atera ebazan ondorioei erreparatu, ermitea Erreteriariko gainontzeko etxeen antzeko eraikina izango zala pentsau geinke, baina kanpai-horma eta portiko eta guzti. Beraz, bistako harriz edo karez egindako hormaduna izango zan, harlanduzko izkinakaz. Teilatua isuri bikoa izango zan, egurrezkoa eta teila kurbataduna. Itxiturea, erdi-puntuko arkudun ate batez eratuta eukiko eban. Seguruena ez eban torre alturik eukiko eta, horren orde, harlanduzko kanpai-hormea eukiko eban (tontorrean kurutze batez).

Arregiren beraren berbak ekarrita:

“La orientación de la ermita, al este: el altar mirando a la salida del sol. La planta del edificio, de nave única y rectangular. El suelo pavimentado con losas de piedra, y posteriormente con baldosas de tierra cocida. El presbiterio, separado del plano de la nave con una o más gradas, de losas de piedra. El altar construido en piedra. El retablo, con el santo titular, y muy frecuentemente conteniendo otros santos protectores o de devoción. Junto a la puerta, una o dos pilas para el agua bendita (ur bedeinkatu ontzia) siempre decoradas o rematadas por una cruz.”¹²

Kokalekuari buruz

1576ko agirian esaten danez, ermitea Ibinarriaga eta Bizkarra baserrien tartean egoan. Nik uste Ajangizeko argindar zentralaren ondoko mendi-lepoan egongo zala.

4.- MADALENA ERMITEA

San Bartolome ermiteagaz jazotakoaren antzera, Andra Mari Madalena ermitearen barri be XVI. mendetik aurrera daukagu. Ermita hau be Gernika uribilduaren tutelapean egongo zan.



La zona baja de Maloste

Siguiendo las investigaciones desarrolladas por Gurutzi Arregi¹¹ sobre las ermitas vecinales, y concretando sus conclusiones en la ermita de San Bartolomé, podríamos aventurar que esta ermita sería un edificio bastante similar al resto de las casas de la Rentería, salvo la espadaña y el pórtico: Es decir, levantada con muros de mampostería vista o encalada y con esquineros de sillería. El tejado a dos aguas, de madera y con teja curva. El cerramiento, por medio de una puerta de arco de medio punto. Posiblemente carecía de torre elevada. En su lugar tendría una espadaña de piedra de sillería (rematada por una cruz) que acogería las campanas.

En palabras de la propia Arregi,:

Tal y como se señala en el documento del año 1576, esta ermita estaba situada entre los caseríos Ibinarriaga y Bizkarra. Yo creo que estaría situada en la loma cercana a la estación eléctrica de Ajangiz.

4.- LA ERMITA DE LA MAGDALENA

Al igual que la ermita de san Bartolomé, también tenemos constancia documental de la ermita de Santa María Magdalena desde el siglo XVI. Esta ermita también habría estado bajo la tutela de la villa de Gernika.

¹¹ ARREGI, G.: Opus cit. 96-102 or.

ARREGI, G.: Opus cit. Páginas 96- 102.

¹² ARREGI, G.: Opus cit. 96-102 or.

ARREGI, G.: Opus cit. Páginas 96- 102.

Madalena deitorea

Eleizabeta Hallamen¹³ arabera, Andra Mari Madalena, Itun Barrian, Jesusen emakumezko jarraitzaile sutsuena izan zan, ze antza “zazpi demonino” atera eutsazan barrutik. Gurutzil-tzatze momentuan hantxe egon zan, lurperatu ebenean be bai eta, gorputza oloioztatera joan zanean, hilobia hutsik egoala konturatu zan, eta Kristo berbiztua begien aurrean agertu jakon.

Tradizioak beste modu batera zabaldu dau emakume horren irudia, alabastrozko ontzi bateko gantzuagaz Kristoren oinak oloioztatu ebazan damututako emagalduren irudi lez. Baina eleizeak beti baztertu izan dau irudi hori. Dana dala, Erdi Aroan asko zabaldu zan sineskera hori, eta Andra Mari Madalena penintenzian dagozan pekatarien eta damututako emagalduen zaindari bihurtu eben. Gainera, kontenplazinozko bizitzearen eta damututako pekatarien zaindaritzak izentau jakozan.

Madalena eguna garagarilaren 22an ospatzen da. Sinboloa alabastro ontzia da, barruan gantzuagaz.

Aztarna dokumentalak

Gaur egun ermita honeri buruz daukagun agiritik zaharrenak 1592ko data dauka. Agiri horretan, erreterian Urrengo erroterean (Urrengoerrota) zortzirena saldu izana jasoten dauanean, behin baino gehiagotan aitatzen da:

*“la octava parte del molino Madallerengo herrotea, vecinito a la ermita de la Madalena del concejo de Ajanguiz”.*¹⁴

Geroago, 1680an, teniente nagusiak Busturiko merinaldera egindako bisitaldian, eleizate bakoitxaren barri bere eleiza guztiakaz batera jaso zan, eta Ajangizen Santa Madalena agertzen da¹⁵.

1738ko beste dokumentu baten, Madalena etxeak Mesedetako komentuari eutsazan zor batzuen barri jasoten dauanean, esaten da:

*“expresamente hipotecó la casilla que está junto a la ermita de la Buena Venturada Santa María Magdalena de este mismo concejo”.*¹⁶

1751n beste hau esaten da:

*“(...) en la ermita de la Magdalena del concejo de Ajanguiz, paraje acostumbrado para los ayuntamientos y congresos que se ofrecen en el referido concejo”.*¹⁷

1752ko beste paper-sorta baten idatzita dago:

*“que los tocaba en propiedad y posesión la casa llamada de Magdalena Goxeazcoa Echevarría que está en este Concejo, junto a la ermita del mismo nombre, (...) que los dicho Juan y Domeca (...) hubieron comprado y reedificado”.*¹⁸

Advocación de la Magdalena

Según Elizabeth Hallam¹³, María Magdalena aparece en el Nuevo Testamento como una de las seguidoras más fervorosas de Jesús, pues éste había expulsado de ella “siete demonios”. Estuvo presente en la crucifixión, atendió a su entierro y, cuando fue a ungir su cuerpo, descubrió la tumba vacía, y Cristo resucitado se le apareció entonces.

La tradición generalizada, que la identifica con la anónima prostituta arrepentida que ungió los pies de Cristo con el unguento de un vaso de alabastro, ha sido repudiada por la Iglesia. Sin embargo, en la Edad Media esta creencia se propagó, haciendo de María Magdalena la santa patrona de los pecadores penitentes y de las prostitutas arrepentidas. Además se le otorgan los patrocinios de la vida contemplativa y el de los pecadores arrepentidos.

Su festividad se celebra el 22 de julio. Su símbolo es el vaso de alabastro con unguento.

Vestigios documentales

El documento más antiguo que, a día de hoy, conocemos sobre esta ermita está fechado en 1592. En ese documento, que trata sobre la venta de la octava parte del molino de Urrengo (Urrengoerrota) en la Rentería, se alude en varias ocasiones a:

Más adelante, en el año 1680, en la visita del Teniente General a la merindad de Busturia, se anotan las anteiglesias con sus respectivas iglesias, y en Ajanguiz aparece la de Santa Magdalena¹⁵.

En otro documento fechado en 1738, y que se refiere a las diversas deudas que mantiene la casa de La Magdalena con el convento de La Merced, se señala que:

En el año 1751 se menciona:

En otro legajo de 1752 aparece:

Arratzuko Santo Tomasera eta hango ermitetara 1758an eta 1768an gotzainak egindako bisitaldietan be aitatzen da Madalena ermitea, eta bietan agintzen da:

*“... que se tengan con mucho aseo y curiosidad, y sin permitir en ellas... cosas que no corresponden a lugar sagrado”.*¹⁹

1793ko dokumentu baten, Francisco Mateo Agiriano y Gómez jaunak, Kalagorriko gotzainak, bagilean Arratzuko Santo Tomas parrokiara eta eleizaz hareri egokozan ermitetara egindako bisitea kontetan dau²⁰:

“También se visitó la ermita de Santa María Magdalena, en el concejo de Ajanguiz, que se halló decente. Pero se notó que la ara del altar de San Bartolomé es muy pequeña. Que dentro de dicha ermita hay varios barriles de pólvora. Y, aunque al presente no hay granos en la misma, se ha informado a S.S.I. que el mayordomo acostumbra a tener en ella los que recoge de los diezmos que arrienda. Y que también suelen los vecinos de dicho concejo juntarse en la misma ermita a tratar de cosas temporales.

Por lo que mandaba y mandó S.S.I. que dentro de veinte días vea publicación de este auto, se quite la ara pequeña y ponga otra consagrada más crecida. Que se saquen de dicha ermita los barriles de pólvora que en ella existen. Y en adelante no se custodien dentro de la misma granos, pólvora ni otras cosas que no correspondan a lugar sagrado. No tengan juntas de carácter temporal y profano, ajenas de la reverencia que se merecen los lugares destinados para la oración y culto divino, bajo pena de cincuenta ducados. Y con apercibimiento que se procederá a lo demás que en derecho haya lugar”

Ermitearen erabilerea

Andra Mari Madalena ermitea, leku sakratua izateaz gainera, Ajangizeko eta Erretereriako auzotarren arteko batzarrak egiteko espaziotzat be erabiltzen zan²⁰.

Eta holantxe berresten dabe beste agiri honek be : 1813ko agiri baten hauxe dago jasota:

“el Ayuntamiento de Ajanguiz, reunido en la ermita de La Magdalena, concede el terreno para edificar una casa en el término de Artarán, que existe frente de esta ermita de la Magdalena... y en su vista, el referido Yrusta (hizamenaren onuraduna) dio a los asistentes a este ayuntamiento, por vía de refresco, un pellejo de vino de cuatro canturas, que se consumieron entre ellos”.

Eta 1816an datautako beste agiri honetan, hauxe:

“el Ayuntamiento de Ajanguiz, reunido en la ermita de La Magdalena, (...) trata de hallar dinero para concurrir a los gastos que se originan en conseguir la erección de nueva iglesia (La ermita de la Ascensión en Mendieta).

Gainera, agiri horretan bertan esaten da:

“el Ayuntamiento de Ajanguiz, reunido en la ermita de La Magdalena, manifiesta que trata de pagar las inmensas deudas contraídas por este pueblo a resultas de las contribuciones exigidas por el gobierno intruso (El gobierno títere que instituyó Napoleón en Bizkaia), por lo que acuerda vender el monte común arbolar de Mederueta”.

Jasotakotik ondorio edo uste batzuk ateratekotan, ermiteak estalitako atziorren bat eukiko ebalapentsau geinke, harrizko mahairen bategaz eta jesarteko banku luzeakaz, auzotarrak eztaba-detan erosoago egon eitezan.

En las visitas episcopales a Santo Tomás de Arratzu y a sus ermitas, de los años 1758 y 1768 se cita la ermita de la Magdalena, y en ambas ocasiones se señala:

Del año 1793 data este documento, en el que don Francisco Mateo Agiriano y Gómez, obispo de Calahorra, narra su visita en junio de ese año a la parroquia de Santo Tomás de Arnatzu y a las diversas ermitas pertenecientes eclesialmente a ella²⁰:

Uso y utilidad de esta ermita

Esta ermita de Santa María Magdalena, además de ser un lugar sagrado, era el espacio donde se celebraban las reuniones de los vecinos de Ajanguiz y de la Rentería²¹.

Y así lo corroboran estos nuevos documentos, que a continuación se presentan : En un documento de 1813 se explica cómo:

En otro documento fechado en 1816,

Por cierto, en el mismo documento se señala que

De lo anterior se puede deducir o sospechar que la tal ermita podría haber dispuesto de un atrio cubierto con alguna mesa de piedra y bancos corridos para mayor comodidad de los vecinos en sus deliberaciones.

¹³ HALLAM, E.: Opus cit. 41. or.

HALLAM, E.: Opus cit. Página 41.

¹⁴ ITURRIARTE, A.: “Transcripción del archivo del convento de la Merced”. 1592ko agiria, Ajanguiz. Maria Ortiz de Arceagaren aldeko zentsua. 2000. urtea. Argitalpen numeratua eta mugatua.

ITURRIARTE, A.: “Transcripción del archivo del convento de la Merced”. Documento de 1592. -Ajanguiz. Censo a favor de María Ortiz de Arceaga. Año 2000. Edición numerada y limitada.

¹⁵ BIZKAIAKO FORU AGIRITEGIA: Ondare administratiboa. Espedienteak eta eskriturak. 1. signaturak.

ARCHIVO FORAL DE BIZKAIA: Fondo Administrativo. Expedientes y escrituras varias. Signatura nº 1.

¹⁶ ITURRIARTE, A.: Opus cit. Ajanguiz, 1738. Madalena baserriaren kontrako zentsua.

ITURRIARTE, A.: Opus cit. Ajanguiz, 1738. Censo contra la casería de la Magdalena.

¹⁷ BFA. Protokolo notarialen ondarea. Eskribaua: Martín de Foruria. 128. signaturak. Gernika.

A.F.B. Fondo de protocolos notariales. Escribano: Martín de Foruria. Signatura 128. Gernika.

¹⁸ ITURRIARTE, A.: Opus cit. Ajanguiz, 1752. Madalena etxeak Mesedetako komentuaren jabeztapean.

ITURRIARTE, A.: Opus cit. Ajanguiz 1752. La casa de la Magdalena pasa a propiedad del convento de La Merced.

¹⁹ BEAH: Arratzuko Santo Tomasako eleiz-liburua. Bisitak.

A. H. E.: Libro de fábrica de santo Tomás de Arnatzu. Visitas.

²⁰ BEAH: Opus cit.

A.H.E. : Opus cit.

²¹ BEAH: “Libro de decretos del concejo de Ajanguiz: Ermita de La Magdalena. 1813.”

A.H.E.: “Libro de decretos del concejo de Ajanguiz: Ermita de La Magdalena. 1813.”

Ermitea, beraz, auzotarren beste beharrian batzuetarako be erabiliko zan: garai gatazkatsuetan polborea gordeteko biltegi lez, kontsejuko artxibo modura, aleregi lez, e.a.

Dana dala, ermitea holakoetarako erabiltaren kontua ez zan eleizako agintarien gustukoa —ez behintzat Kalagorriko gotzaintzearena—. Horregaitik, 1793an agindu eban ermitak ezin zirala aldian-aldian jarduera profanoetarako erabili “ajenos de la reverencia que se merecen los lugares destinados para la oración y el culto divino” zirala eta. Aginduak ezo eban oihartzun handirik euki, ze urte batzuko geroago, 1833an, auzotarrek bertan alkartzen jarraitzen eban:

“La ermita de la Magdalena del concejo de Axangiz, a primeros de marzo. Reunidos el vecindario en la forma de uso y costumbre, con la asistencia de la mayor y más sana parte del pueblo.”

Kokaleku posibleari buruz

Ermitearen kokaleku zehatza inkoznita hutsa da, baina zein ingurutan egoan sumoren bat edo beste euki badaukagu. Hasteko eta behin, orain arte aitatu doguzan agirietan esandakoetara jo daigun: “(...) el molino de Madallerengo herrotea, vecinito a la ermita de la Magdalena”, dino 1592ko batek. Beste paper-sorta baten, 1752koan, esaten da: “(...) la casa llamada de Magdalena Goxeazcoa Echevarria que está (...) junto a la ermita del mismo nombre”. Baina beste haxe da oinarritzko dokumentua²², 1862koa. Bertan, ermitea 1835ean hondatu zan leku berean barriro altxetako gogoa aitatzen dau udalak. Baina, ohar honegaz:

Dokumentu guztiok ondo irakurri ostean,

“la delimitación del nuevo camino vecinal de Guernica para Marquina puede ser un obstáculo para su reedificación en el mismo punto en que existió anteriormente la ermita de la Magdalena”

ermitea gaur egun Ajangizera igoten dauan bidean kokatuko geunke, Erreterriako kurutzetik 10 bat metrora.

5.- MADALENA AUZOA

Malosteri buruz

Ermitearik gehienek, mantenu-gastuetarako, lursailak, mendiak edo etxeak eukizan. Baina jabetza horreetako asko eta asko inorenaganatu egin ziran XIX. mendean, desamortizazioakaitik. Gehienak ermita inguruko lursailagaz baino ez ziran geratu, auzokoak ziralak, nahiz eta ermitearen jabetzapekoak.

Bizkaiko ermitei buruzko lege orokor hori

La ermita cumplía, además, con otras funciones comunales: Almacén de barriles de pólvora en épocas turbulentas, el archivo del concejo, almacén de granos, etc.

Sin embargo, estas prácticas no agradaban ni poco ni nada a la autoridad eclesiástica -al obispado de Calahorra-, por lo ésta decretó en 1793 que no se tuvieran en ella juntas de asuntos temporales y profanos “ajenos de la reverencia que se merecen los lugares destinados para la oración y el culto divino”. Esta orden no tuvo demasiado eco, toda vez que muchos años más tarde, en 1833, los vecinos continuaban reuniéndose allí:

Sobre su posible emplazamiento

La localización exacta de esta ermita constituye una incógnita, si bien es verdad que sospechamos cuál era la zona donde se instalaba. Por de pronto, comencemos con lo que dicen los documentos que anteriormente hemos citado: “(...) el molino de Madallerengo herrotea, vecinito a la ermita de la Magdalena”, dice uno de 1592. Otro legajo, éste de 1752, señala “(...) la casa llamada de Magdalena Goxeazcoa Echevarria que está (...) junto a la ermita del mismo nombre”. Pero el documento fundamental es éste²³, fechado en el año 1862. En él, el ayuntamiento expresa su deseo de reconstruir la ermita en el mismo punto en el que fue destruida en 1835. Sin embargo, señalan que

Tras una lectura detallada de estos documentos, emplazamos esta ermita en la actual carretera que sube hacia Ajangiz, a unos 10 metros de la cruz de Rentería.

5.- EL BARRIO DE LA MAGDALENA

Sobre Maloste

La mayoría de las ermitas han contado para su sostenimiento con heredades, montes y casas. Lo que ocurre es que muchas de estas propiedades fueron enajenadas a lo largo del siglo XIX con las diferentes desamortizaciones y conservaron únicamente el terreno que rodeaba a la ermita, considerado vecinal, aunque perteneciente a la dicha ermita.



Maloste

zehatz-mehatz bete izan da Madalenaren kasuan be: hasteko, hor dago, esate baterako, Malosteko hariztia, Ajangizeko abere azokak egiteko tradizioz erabili izan dana.

Gaian gehiago sakonduz, Maria Victoria Gondrak²³ Ajangizeko Sagarzola baserrian topautako agiria aitatzen dau, etxebizitza bat egiteko baimena emoten dauana. Etxebizitza toki honetan egiteko zan:

Madalena etxea

“en la campa de la Magdalena ondo la rentería, adosada a la Casa Zarra”. La misma autora señala que “todavía en 1853 se cuidaba la campa de La Magdalena, merced a la suma consignada a la plantación de 150 árboles para embellecimiento del punto, ya que allí se celebraban con todo esplendor los días de feria.”²⁴

Ermiteari dautsala egoan etxe hau agiririk zaharrenetan be agertzen da. 1630eko agiri baten dago Madalena etxearen dohaintzearen eskritura²⁵. Handik urte batzuetara, 1704ko su-errolan²⁶ izen bereko etxe bi agertzen dira: Madalena. 1738an datautako beste agiri baten haxe esaten da:

1745eko su-errolan Madalena eta Mada-

“expresamente hipotecó la casilla que está junto a la ermita de la Buena Venturada Santa María Magdalena de este mismo concejo”.

Esta ley general en las ermitas vizcainas también se ha cumplido punto por punto en el caso de la Magdalena: Para empezar, señalemos la existencia del robledal de Maloste, donde se han celebrado tradicionalmente las ferias de ganado de Ajangiz.

Inciendo más en el tema, Maria Victoria Gondra²³ cita un documento encontrado en el caserio Sagarzola, en Ajangiz, en el que se concede un permiso de edificación para la construcción de una vivienda:

La casa Magdalena

Esta casa anexa a la ermita aparece en los documentos más antiguos: Así en un documento²⁵ del año 1630 se encuentra la escritura de donación de la casa Magdalena. Años más tarde, en la fogueración²⁶ del año 1704 aparecen dos casas llamadas igualmente, la Magdalena. En otro documento fechado en 1738 se señala que:

²³ GONDRA, M.V.: Opus cit. 47. or.

GONDRA, M.V.: Opus cit. Pág. 47

²⁴ GONDRA, M.V.: Opus cit. 47. or.

GONDRA, M.V.: Opus cit. Pág. 47

²⁵ BFA. Ajangizeko udal ondarea. Atal notariala.

A. .F.B. Fondo municipal de Ajanguiz. Sección notarial.

²⁶ KEREXETA, J.: “Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII”. Labayru Ikastegia – Etniker-en argitalpena. Bilbao.

KEREXETA, J.: “Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII”. Instituto Labayru- Etniker. Bilbao.

²² BFA. Ajangizeko udal ondarea. Herrilaren atala. 0036/003 signatura.

A.F.B. Fondo municipal de Ajangiz. Sección obras. Signatura 0036/003.

lena oste agertzen dira. 1752an datautako beste agiri baten²⁷ esaten da Madalena Gojeaskoa etxearen jabeek saldu egin nahi ebela. Ba, etxe hori Mesedetako komentuari erosi eban, etxe hori Erreteriariko ibarrean egokion ogia ereiteko zortzi gizalaneke lursailagaz batera.

1769an aitatzen da Madalena Beaskoa.²⁸

"expresamente hipotecó la casilla que está junto a la ermita de la Buena Venturada Santa María Magdalena de este mismo concejo".

Amaitzeko, 1796ko su-erroldan agertzen da Madalena etxearen jabe barria moja Mesedetako komentua dala (aztertu barri dogunez) eta, gainera, Madalena Beaskoa aitatzen da.

Madalena auzoa

Erreteria bera txiki samarra izan arren, bertako bizilagunek auzo bi bereizten ebezan: erreteria etxearen ingurua (portuko etxeak eta negozioak, erreteria etxea eta zubia hartzen ebazan gunea), eta Madalena ingurua (Madalena ermitatik hur egozan etxeak eta negozioak).²⁹ Holan ba, 1727ko jakinarazpen baten jasota dago:

